

## BEZEROEKIKO HARREMANAK



Gure proiektuan bezeroekin harremana pertsonala izatea nahi dugunez, gertukoak izan nahi dugu baina teknologia alde batera utzi gabe. Horregatik, diskotekarako sarreren portzentaje bat gure webgunean jarriko ditugu. Webgunean, sarrerak, parranda eguna baina 3 egun lehenago jarriko ditugu, (diskoteka irikita noiz egongo den ere bertan jarriko dugu, noski) bertan % 50a jarriko da salgai eta beste % 50a parranda egun berean sagardoteka kokatuta egongo den tokian salduko ditugu, hau, lehen esan bezala, industria nabe batean egongo da kokatuta, Tolosaldean.

Sagardotegira joan nahi dutenak sagardotegiko telefono zenbakira deitu beharko dute (telefonoa sagardotegia irikita dagoenean bakarrik egongo da erabilgarri) eta %10 a erreserba gabe mantenduko dugu azken unean sagardotegira bazkaltzera edo afaltzera joatea erabakitzen dutenentzat.



Ordutegiari dagokionez, parranda eguna baina 3 egun lehenago webgunean eskuragarri jarriko ditugun sarrerak uneoro egongo dira bezeroentzat eskuragarri, baina sagardotegiari dagokionez, ordutegi jakin bat izango du: goizeko 12:00-tatik goizaldeko 01:00-tara.